



Esperientzia bizi, bizi esperientzia

Debabarreneko Esperientzia Eskola duela 4 urte jarri zen martxan, 50 urtetik gorako pertsonak ikasten jarraitu eta gizartean eragina edukitzeko helburuarekin. Orain arte izan diren lau promozioetan 80 ikasle hartu dute parte. 2007-2008 ikasturtean, Ermuko Jose Manuel Onaindia eta Mallabiko Gema Alza izan dira Eskolako ikasle.

Zuzenbidea, ekonomia, informatika, filosofia... Egun, batxillergoan edo unibertsitatean ematen diren ikasgaiak dira, baina baita Debabarreneko Esperientzia Eskolako ikasleek azken lau urteetan jaso dituztenetako batzuk ere. Halere, ikasgai horiekin batera, gizarte harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, osasun fisiko eta mentalaren zainketa eta hobetzea, erlajazio teknikak, garapen iraunkorra, psikologia, Debabarreneko kultura eta ohitura bezalako gaiak osatzen dute ikasturteko gaitegia. Horiek guztiak adituen eskutik eta ikasleen beharretara moldatuz. Alegia, ikasleek euren egunerokotasunean probetxua atera eta erabili ahal izateko ikuspegitik garatzen dira gaiok.

Eskola honetara joan ahal izateko hiru dira bete beharreko baldintza nagusiak: ikasteko gogoia edukitzea, jende berria ezagutu nahi izatea eta 50 urtetik gorakoa izatea. Eva Perez de Albeniz, Esperientzia Eskolako koordinatzailea da eta oso argi utzi nahi du Esperientzia eskola gune irekia dela: "Ez da beharrezkoa aurrez titulaziorik izatea edota lan intelektuala logoetan aritua izatea. Eskola hau ikasteko eta gizartearen era aktibo batean parte har-



tzeko gogoia duten Debabarreneko 50 urtetik gorako pertsonen dago zuzendua". Iritzi bera konpartitzen du Gema Atxak, 55 urteko mallabitarra eta 2007-2008 ikasturteko ikaslea izan denak. "Jende askok uste du ez dela zer egiterik eta adin horretan ikasten hastea zorakeria dela. Nik erratuta dau dela esango nieke. Gure taldean, etxeko andreak, irakasleak, mariñelak, jostunak, tornulariak egon dira. Edozeinek egin ditzake ekarpenak. Izan ere, oso gune interesgarria da jendearen artean berba egiteko, debati-

tzeko eta nork bere iritzia konplexu barik emateko". Iritzi hori indartzera dator bere ikaskide izan den Jose Manuel Onaindia 66 urteko ermuarra: "Eskola horretan hartu eta eman egiten duzu. Enpresek komertzio fondo bat dute, saldu eta ekoizteko. Jende nagusiak esperientziaren fondo bat dugu eta horrek enpresaren komertzio fondoak beste balio du. Erabili eta transmititu egin behar dugu. Nik hori helarazi nahi diot ni bezalako Ermuko jendeari, hori transmitituz esperientzia oso aberasgarria izango delako. Denok egin ditzagu ekarpenak".

beste batzuekin alderatuta eta koordinatzaile zein ikasleek azpimarratu nahi dutena, "ez dago azterketarik ezta etxeko lanik ere". Klaseak astean hiru egunetan hiru orduz Eibarko Unibertsitate Laboralean izaten dira. Irakasle adituen eskutik jasotzen dituzten klaseez gain, ekintza osagarriak egiten dira, besteak beste bisita kulturalak, txangoak eta zine forumak. Jose Manuel Onaindiak klaseak "solasaldi" gisa definitzen ditu.

Hala eta guztiz ere, Eva Perez de Albenizek onartzen du jendeari hasieran kosta egiten zaiola izena ematea, baina parte hartu ahala ikasleen balorazioa oso positiboa izaten dela. "Nire espektatibak erabat bete dira. Hizlarien maila, ponentziak eta gaiak oso interesgarriak izan dira. Joan, en-

"Jende nagusiak esperientziaren fondo bat dugu, enpresarena bestekoa"

Azterketarik ez

Koordinatzaileen ustez, jende askok atzera egiteko arrazoiak, azterketak izan daitezke, baina eskola honen badu ezberdintasun bat

ILEAPAINDEGIA
Iraskun
 Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak
 aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza
 fiskal eta juridikoa
 Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY
Zubiaurre
kalearen
bihotzean

tzun, hitz egitea eta iritziak trukatzea oso aberasgarria izan da", dio Gema Atxak. Jose Manuel Onaindiaren iritziz, "Norbera bere ingurura mugatua dago. Esperientziak trukatzek ideia mordoa dakartza. Jende nagusiak abantaila bat dugu eta da, kontatzen digutena hobetzeko molda dezakegula. Niri asko gustatu zait esperientzia. Ikasi dut ulertzen jende askok ez duela gehiago egin, ezin izan duelako eta orain aukera hori duela. Oso garrantzitsua da jende nagusia aktibo egotea".

Ikastaroaren ondoren aukera gehiago

Ekimenak, 50 urtetik gorako jendeak ikasten jarraitzea eta gizartean eragitea du helburu nagusi. Gizarteak bizi dituen aldaketak hobeto ulertu ahal izateko prestakuntza eskaintzen zaie, gaiak eguneroko ikuspegitik

landuz eta batez ere, adin talde hori osatzen duten pertsonen gaur egungo gizartean modu aktiboan parte hartu ahal izateko eta eragiteko ahalmena bultzatu nahi du eskolak. Horren erakusle, 'Ikasten' elkarte da, Debarreneko Esperientzia Eskolako ikasle ohiek sortutako taldea. Hezkuntza eta gizarte partaidetza sustatzen jarraitzen duen talde horrek, ekitaldi, formazio saio eta bidaia kultural ezberdinak antolatzen ditu urtean zehar. Gema Atxa eta Jose Manuel Onaindia bertoko partaide dira, beste ikasle ohi asko bezala. "Ikasten"en bitartez, ikasturte bakoitzean ateratzen diren proiektuari buruzko batzuk jartzen dira martxan. 2007-2008 ikasturtean 12 egitasmo aurkeztu zituzten eta horietatik 3 jarriko dira martxan: turismoaren gaia lantzen duen bat eta, laguntza behar duten pertso-

"Jende askok ez du gehiago egin ezin zuelako, eta orain aukera hori du"

na nagusia da bestea. Hirugarrenak Debarreneko formazio zentro ezberdinak, bertoko agente ezberdinekin (enpresari, irakasle, familia) harremanetan jarriz, gazteei aholkularitza ematea du helburu, eta, gazteengan gauza berriak egiteko gogoia sustatu. Bertako partaide da Jose Manuel Onaindia.

Halaber badira bestelako egitasmoak ere, Kaleetan Kantuz, Infogune, Landareen foroa edo Deol (Opera) proiektua. Horien guztien inguruko informazio xehea, www.ikasten.nireblog.com helbidean aurki daiteke.

Esperientziaren Eskolan besteekiko harremanetan,

maila fisiko eta psikikoan norberaren garapen pertsonala lantzen da eta orokorrean giza-harremanak sustatzen dira.

Bertan parte hartu duten ikasle gehienek oso balorazio positiboa egiten dute eta batez ere ideia bat azpimarratzen dute, "jubilatzeak ez duela esan nahi bizitzak aktibotik kanpo geratzea", dio Eva Perez de Albeniz koordinatzaileak. "Gizartean aldaketa ugari izan dira azken urteotan eta jendearen profilean ere aldaketa handiak izan dira, badago adin tarte horretan ikasten jarraitu eta aktiboago dagoen jendea, jubilazioaren beste ikuspegi bat duena eta horixe eskaini nahi zaie Esperientzia Eskolan".

Izena ematea

Debarreneko Esperientzia Eskola, Debegesak sortu zuen proiektua da, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Aurtengo ikasturtea 2008ko urriaren 24tik 2009ko maiatzaren 22ra izango da. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko, interesa dutenek Ermua eta Mallabiko udaletxeetara joan daitezke edo Debegesara (Telf: 695 788 936 /www.debegesa.com).

Alazne Aiestaran



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

Solozabal
estankoa



torrekua z/g
Tel/Faxa. 943 17 07 33
fax publikoa

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua